



# BANDOA

**ARALAR MENDIKO DOKUMENTU ETA ORDENANTZEN LIBURUA  
HAR EZAZU LIBURU HISTORIKO HAU DOHAINIK**

**ETXARRIKO UDALETXEAN (goizez)  
EDO LIBURUTEGIAN (arratsaldez)**



Aralar Elkartea 1770ko ekainaren 27an eratu zen, Aralar mendiko mugan dauden hemeretzi herri bilduta. Elkartearen xedea da Aralar mendiko ondasun komunak zaindu eta administrazioa, betiere bere ordenantza eta araudi propioei jarraituta. Hemeretzi herri horietako biztanleak bakarrik aprobetxa daitezke ondasun horietaz.

1876an, Aralarko Elkartek bere esku zituen agiri guztiak bildu, eta Francisco Sánchez Aso lizentziatuari enkargatu zion Aralarko Elkartearen liburua argitaratzea. Liburua 1869 urtean inprimatu zen, Tuteran. Baina denborarekin ia ale guztiak desagertu egin ziren.

José María Satrustegik bere artxiboan gordea zuen ale bati esker, liburua digitalizatu eta kontserbatu ahal izan da, eta Aralar Elkartek liburu historiko berritua argitaratu ahal izan du.

Etxarri Aranatz Aralar Elkarteko kidea izanik, Etxarriar guztiok liburu hau dohainik eskuratzeko aukera bikaina dugu. Har ezazu zure liburua dohainik Etxarriko Udaletxean goizez, edo Etxarriko liburutegian arratsaldez.

Etxarri Aranatz, 2016ko azaroaren 8an  
Etxarri Aranazko Alkatesa  
Eneka Maiz Ulaiar

